

# COVID-19 NEWSLETTER

Brasil 2020/06/03







## INPAKTU EKONOMIKOA


### Makro datuak

BPGaren bilakaeraren aurreikuspena 2020an <b>% -5,3</b> Lehen hiruhilekoan % -1,5 IBGEn arabera 2021: % +2,9, NDFren arabera	2020ko inflazioaren aurreikuspena (BZren arabera) <b>% 2,52</b> Apirila: -0,31 / Azken 12 hilabeteak: % 2,40
Zerbitzuetako / Industriako PMI indizea apirilean <b>27,4 / 36</b>	Apirileko langabezia <b>% 12,6</b>

EUR/BRL kanbio-tasa: **5,94022** (% 31,70 2020/01/01etik, % 1,52 azken astean)

### Inpaktua sektore industrialetan

-  Petrolioaren prezio baxuak eragin negatiboa dauka, bai **oil&gas industrian**, eta baita ere **nekazaritzako negozioan, etanolaren prezioak ere behera egin duelako** petrolioarenarekin batera. Petrobras-ek EBITDA ona aurkeztu du 2020ko lehen hiruhilekoan. Aurreikuspenen arabera, bigarren seihilekoan gorpuztuko da bere inpaktua. Petrolioaren prezioa igo egin zen maiatzaren 25eko astean, eta gorakada handi batekin itxi zuen astea. Ondorioz, aste horretan bertan etanolaren prezioak % 6,66 egin zuen gora São Pauloko merkatuan
-  Nekazaritza negozioaren bolumen-aurreikuspen onak frogatuta gelditu dira urteko lehen uzta biltzean, 2019ko garai berekoa baino % 0,8 handiagoa izan baita
-  **Automozioa**  
Scania, MAN eta Volkswagen Caminhões eta Onibus (Traton taldea) enpresek beren jarduera berrieki dute apirilean. Maiatzaren hasieratik hona, gauza bera egin dute Mercedes-Benz, FCA, Jeep, BMW eta Renault-ek ere. Ford-en asmoa da Camaçari eta Taubaté hirietako fabrikak berri irekitzea ekainaren 1etik aurrera. Hondak Brasilen dauzkan langileen kontratua eten du 60 egunez. Ibilgailuen ekoizpena % 99,3 gutxitu zen apirilean, eta 1850 bat auto bakarrik ekoitzi ziren, 1957tik erregistratu den kopuru baxuena. ANFAVEAko presidenteak adierazi du auto fabrikatzaileek lau hilabeteko ibilgailu stock-a dutela batez beste, normalean hilabetekoa izaten den arren
-  **Aeroespaziala**  
Embraer enpresak bere produkzioa gelditu zuen martxoaren 23an. Langile guztien soldatak % 17,5 eta % 36,36 bitartean jaistea onartu da. Boeing enpresak bertan behera utzi du Embraer-ekin sinatzekotan zen aliantza. Embraer enpresak 14 hegazkin entregatu zituen lehen hiruhilekoan (2019ko epealdi berean 22 unitate izan ziren, eta azken 3 urteetako batez bestekoa, berriz, 25 da). Azul aire konpainia brasildarra 59 unitate entregatzekotan zen 2020 eta 2023 bitartean, baina 2024ra atzeratu dute epea. "BRICS" multzoko kide diren enpresa asko interesa agertzen hasi dira. Besteak beste, aipatzekoak dira Txinako COMAC eta Indiako Abiazio Zibileko



Ministerioa. Embraer enpresak 2020ko lehen hiru hilabeteetan izan dituen galerak 2019ko epealdi

berekoak baino sei aldiz handiagoak dira, 292 milioi U\$-era iristeraino

## Inpaktua zerbitzuetan

### Ostalaritza sektorea


Desberdina da estatu bakoitzean. Sao Paulo: ostalaritza eta saltoki gehienak itxita daude. Gobernuak "MP 963" onartu du, zeinak 5.000 milioi R\$-ko kreditu-ildo bat ireki baitu sektoreko enpresentzat. ABIH elkartearen arabera, hotelen desokupazio-tasa % 96raino igo da koronabirusaren krisiaren ondorioz. SP estatuan egingo den eremukako berrirekiera plan berriarekin, zenbait tokitako taberna eta jatetxeek irekitzeko baimena izango dute, baina aforo mugatuarekin eta mahaiak jarritz ezin diren establezimenduaren kanpoaldean

### Logistika

Batasuneko Kontuen Epaimahaiaren Ministerioak askatu egin du SP estatuko merkatu-gaien garraiorako trenbide-sarea berritzeko proiektua; 6.000 milioi R\$-ko inbertsio pribatuko proiektu bat da. Azpiegitura Ministerioak eta Garapen Sozialeko Banku Nazionalak (BNDES) lankidetzakordio bat sinatu dute 7.200 kilometroko (km) errepideen esleipena egituratuko duten azterketa teknikoak egiteko eta Santos-eko portua pribatizatzeke

## Inpaktua finantza sektorean (merkatuak, bankuen sektorea)

- ❖ **Interes-tasak** (SELIC tasa): **% 3** (% 3,75ekoa zen
- ❖ **Merkatuak**: BOVESPA Indizea: % -25,10 2020an (2020/06/01) % +3,67 maitzaren 25etik



## EUSTE-NEURRI EKONOMIKOAK

### Neurri fiskalak

- ❖ PIS eta COFINS zergen eta Gizarte Segurantzako kontribuzioaren apirileko eta maiatzeko ordainketak atzeratzea: 80.000 milioi R\$
- ❖ Finantza Operazioen gaineko Zergaren ordainketa etetea 90 egunez: 7.000 M R\$ (2020ko uztailaren 3ra arte)
- ❖ FGTSren ordainketa atzeratzea apiriletik ekainera
- ❖ Ekonomia Ministerioaren 201. Ordenantzak aukera ematen du Idazkaritza Federalaren eta Ogasun Nazionalaren menpeko zergen maiatzeko, ekaineko eta uztailako ordainketak abuztura, urrira eta abendura atzeratzeko

### Finantzaketa pribatua eskuratzea (erakundeak eta beste batzuk)

- ❖ Nahiko mugatuta dago momentuz. Gobernutik saiatu dira neurriak hartzen erraztasunak emateko, baina saiakera ez da iritsi amaierako kontsumitzaileengana

### Dirulaguntzak eta mailegu publikoak

- ❖ 40.000 M R\$-ko BNDESren ildo bat enpresetako soldatak ordaintzeko, 10 milioi R\$-ko fakturaziora arte
- ❖ Brasileko Bankuko kreditu-eskuragarritasuna 100.000 M R\$ handitu da. 48.000 milioi R\$ mota guztietako enpresentzat
- ❖ BNDES-en 5.000 M R\$-ko ildoak kreditu-ildo bat eskaintzen die 2020/09/30era arte urtean 300 milioi errealerainoko diru-sarrerak izan dituzten enpresa edo talde ekonomikoek, urtean 70 milioi errealerainoko finantzaketa-mugarekin
- ❖ 6.000 milioi R\$-eko BINDES kreditu-ildoak Azul, Gol eta Latam aire-konpainientzat
- ❖ BNDESek 2,82 mila milioi R\$ onartu zituen enpresa txikientzako kredituaren bitartez
- ❖ **Gobernuak 15,9 mila milioi R\$ liberatuko dituen MP bat argitaratu du, mikro-enpresa eta konpainia txikientzako maileguak bermatzeko**

### Lan-indarra


- ❖ **Langileak:**
  - MP927: malgutasun handiagoa oporrak aplikatzeko, ordu-bankua eta *home office*
  - MP936: Lanaldia murrizteko edo kontratua aldi baterako eteteko aukera, gobernuaren laguntzarekin: langabezia-asegurua osatzeko prestazioak, kopuruarekiko proportzionalak
- ❖ **Mikro-ekintzaileak (MEI) eta mikro-enpresak (Simles):** zerga federalen, ICMSren eta Gizarte Segurantzaren apirileko, maiatzeko eta ekaineko ordainketak uztailera, abuztura eta irailera atzeratuko dira



## MUGAK

- ✓ **Merkatu-gaien garraioak** berdin jarraitzen du lanean. Apirilean Ferroeste konpainiak (Paraná estatua portuekin lotzen duena) errekor historikoa erdietsi du merkatu-gaien garraioan (esportaziorako soja eta okela, batik bat). Merkatu-gaien garraioa 57.000 tonaraino gutxitu zen Brasileko aireportuetan 2020ko apirilean, 2019ko hilabete berean baino % 48 gutxiago
- ↓ **Barneko hegaldiak** murriztu egin dira (LHren hegaldiak % 95), eta **autobusen** bidaiak ere bai, baina badaude gutxieneko zerbitzuak

### Biztanleriaren mugikortasuna

- ✚ **Konfinamendua gomendio bat da** Sao Paulon, **ez da derrigorrezkoa**. Estatu bakoitzean neurri desberdina daude   
Merkataritza eta ostalaritza sektoreen berririkiera Santa Catarina eta Mato Grosso del Sur estatuetan
- ⊘ **Eskolak, unibertsitateak eta museoak** itxita daude, nahiz eta dagoeneko hasi diren espazio horien berririkiera planifikatzen. Maranhao eskualdeko gobernadoreak iragarri du gradualki itzuliko direla ikasgeletara ekainaren 14tik aurrera
- ! Maskara erabiltzea derrigorrezkoa da Manaus, Vitoria, Florianópolis, Belém, Fortaleza, Rio de Janeiro eta Sao Paulo hirietan
- ✓ Oso muga gutxi daude errepideko joan-etorrientzat
- ✓ Sao Pauloko berrogeialdia ekainaren 15era arte luzatu da, baina iragarri da neurriak malgutuz hasiko direla pixkanaka. Oinarrizkoak ez diren jardueren ekonomia berraktibatzeke planak bost fase ditu: oinarrizkoak ez diren jardueren erabateko murrizketa (fase gorria), kontrol fasea (laranja), malgutasun fasea (horia), irekiera partziala (berdea) eta fase kontrolatua (urdina). Rio de Janeirot ere iragarri du baduela jarduera ekonomikoer berrekiteko plan bat. Berririkiera 6 fasekoa izango da, eta fase bakoitzak 15 eguneko iraupena izango du
- ! Maiatzaren 11tik, ibilgailuen zirkulazio librea matrikularen arabera mugatu da Sao Paulon, pertsonen joan-etorriak murrizteko

### Mugetako egoera

- ✓ Merkatu-gaien funtzionamendua normala da
- ! **Atzerritarrek debekatuta daukate herrialdean sartzea** lurretik, airetik nahiz itsasotik, kasu jakin batzuk kenduta. Neurri hau 30 egun gehiago luzatu da (maiatzaren 25ean iragarri zen)